

A ze abadeak, Konkordatu kartzelakoak!

Juan Mari Zulaika

Goldatuko kidea eta
Zamorako preso ohia

Pedro Berrioategor-
tuaren heriotzak
beltzez tindatu du
Konkordatu Kar-
tzelaren 50. urteu-
rrenaren ospakizu-
na, baina ez du lausotu, gehiago moti-
batu baizik. Senide eta lagunek bere
omenez antolatutako omenaldia
iragarri nahi dizuet idatzki honekin:
irailaren 8an, larunbata, Zornotzako
Zelaia Zentroan.

Ajeak alboratuta, Zamoran egoni-
koak eta beste errepresaliatuek uztai-
lean prestatu genuen bazkarira etor-
tzen tematu zen bihoz kadak emanda,
hain zuzen lagunak agurtzera. Disi-
mulatu ezineko poztasunez jaso zuen,
taldearen buru zenekoz, eskaini zi-
tzaion lore sorta. *Eusko Gudariak* ere
abestu zuen, kartzelan logelako pabi-
loian abestu ohi genuen lez. Bederatzi
egunetara eman zigun azken agurra.

Borrokarako bere zintotasunaga-
tik, bera genuen zutabe dinamiko eta
errespetagarrienetakoa. Kartzelan
ezagutu nuen eta gero kanpoan Gogor
taldearen hartu-emanetan. Jarrera
sendo eta tinkoa zuen gizonak, eta
bide batez, patxadakoa. Era naturale-
an zeragin lidergoa.

Bere arau sozialekin koherente, Eli-
zako soldatari uko eginaz, hainbat lan
ezberdinetan aritu zen ogibide mo-
duan, abade langile gisara. Sozial es-

kolak bultzatu zituen, JOC edo Herri
Gaztedi elkarteekin batera. Garai har-
tan hain ugari ziren akharrikapen eta
mugida guztietan hartzen zuen parte:
lan-grebak, Aberri Egunak, Malatza-
ren lak, Obispaduko itxialdiak, batez
ere, Derio Apalztegikoa, eta abar.

Hain «inkontrolatu» ez zirenetatik
erasoak jasan zituen, esate baterako,
autoaren erreketak. Birritan sartu zu-
ten Konkordatu Kartzelan, 1968ko
abuztuan hilabete eta erdirako Etxe-
barrietaren alde meza emateagatik eta
1972an sei hilabeterako desakatu eta
propaganda ilegalagatik, TOPak zi-
gorturik. Zamorako abadeetan baka-
rrik, hamasei izan ziren TOParen
epaiak eta hemeretzi epai militarre-
nak. Mostra txiki bat baino ez da az-
ken frankismoaren sententzien arte-
an, zeintzuk ezabatu behar diren, bai
edo bai. Ihesteko zuloa egin edo su
eman zitzaionean, bera ez zegoen bar-
ruan; kanpotik lagundu zuen, baina.
Ekintzen zergatia ez zen kartzela erre-
tzea, irudikatzen zuen Konkordatua
kolpatzea baino.

Euskal Herriaren eskubideen alde,
autodeterminazioa, euskara, euskal
kultura eta abar, Eliza bera horretara
behartuaz, borrokalaria nekazina izan
bazen, ardura berdinekin jokatu zuen
eskubide sozialen alde. Gizarteareki-
ko alderdi biak elkartu zituen *Euskal
Herri Langilearen* lelopean, Gogor tal-
deak berea egin zuena, ziur ez jakin
arren norik asmatu zuen, Periko Sola-
berriaren sotoan, ETaren fronte lan-
gilean edo Gogor taldean. Langile kla-
seen ahalduntzea zen apustua. Baka-
rrik zendu berriak aitatzeagatik,

Periko biak, Imanol Oruamazaga, Ju-
len Kalzada, Txomin Artetxe, taldean
poliki lortu zuten ezker meatzealdeko
eta euskal giroko arima biak bat egi-
ten.

Zornotzan kokaturik, Perikok bi-
kain gauzatzen du beharrezko sintesi
hau, tirabira batzuk eragin bazizkion
ere, 60ko hamarkadaren azkenetan
hain ohizkoak. Esanguratsua *Zamo-
rako Apaiz Kartzela* liburuan egiten
duen aitortpena: «Garai berezia
baitzen oso, Euskal Herriko ezker-
ren barruan joera politikoen ezber-
dintasunak indartuz zihoazen eta
gure artean ere nabaritzen genuen,
eten ideologikoak gauzatzearaino ba-
tztuetan. Aldi berean, ostera, argi zego-
en herriarekiko kezka nagusietan
guztiok gogalde ginela, Euskal Herria
erraletaraino sartua baikenuen».

Beste hemeretzi lagunekin batera,
Pedro lehenengotarikoa izan zen Ke-
reila argentinarrean parte hartzeko si-
natzen. Maria Servini epallearen au-
rrean aurkezteko aukerarik ez izan
arren batzuek bezala, beti aitortzen
zuen merezi zuela Estatuari pultsu
hau botatzeko, frankisten krimenak sa-
latzen. Ondorio definitiboagoaren
zain, kanpainak balio izan du Altxa-
mendu genozidaren jarraitzaileek,
«gelditzen dira», hamarkadatan eza-
rritako islasuna apurtzeko.

Denok gaude gonbidatuta irailaren
8an Zornotzako omenaldira. Diktadu-
raren kontra borrokatzeagatik tortu-
ratu eta atxilotuak omenduko ditugu,
Pedrorekin batera. Askok dihardugu
oraindik askatasun osoagoen ame-
tsaz.